



155/2012 FORU AGINDUA, maitzaren 29koa

Gizartean Esku Hartzeko Arabako Etika Batzordea (CEISA) egiaztatzea

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legean euskal gizarte zerbitzuen sistemaren hobekuntza eta garapena jorratzen dituen VI. titulua garatzeko, martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren 14/2011 Foru Dekretuak, Arabako Lurralde Historikoan gizartean esku hartzeko etika batzordeak sortzeko eta egiaztatzeko modua arautzen duenak, 2.2 artikuluan xedatzen du etika batzordeek Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailaren egiaztapena izan beharko dutela.

Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordea (CEISA), Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikia eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren mendekoa, Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuaren maiatzaren 3ko 55/2011 Foru Aginduaren bidez sortu zen, eta foru agindu horretan zehaztu ziren batzorde horretako kideak.

Aipatutako Batzordea egiaztatzeko aurkeztutako eskaerak 14/2011 Foru Dekretuaren 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ditu.

Ondorioz, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzkoak, 40.10 eta 40.19 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, honakoa

XEDATU DUT

LEHENA. Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordea (CEISA) egiaztatzea, 14/2011 Foru Dekretuak, martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluarenak, Arabako Lurralde Historikoan gizartean esku hartzeko etika batzordeak sortzeko eta egiaztatzeko modua arautzen duenak, 2. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

BIGARRENA. Foru agindu hau erakunde titularraren ordezkariari jakinaraztea.

Marta Alaña Alonso
Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua
Diputada Foral de Servicios Sociales

Paloma Aranceta Arilla
Gizarte Zerbitzuen Saileko zuzendaria
Directora de Servicios Sociales